

Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1996ko irailaren 20a



Nekazaritza ekologikoaren bidetik

■ Espainiako Nekazaritza Ekologikoaren Elkarteak bigarren biltzarra eginen du Iruñean datorren asteazkenetik larunbatera bitartean. Estatu osoko adituak bilduko dira *Nekazaritza ekologikoa eta nekazal garapena* leloa duen bilkura honetan. Bertan izanen dira ere bai, besteak beste, martxoan sortu zen Nafarroako Nekazal Produkzio Ekologikoaren

Kontseiluko kideak. Angel Maria Legasa da erakunde horretako burua eta berarekin mintzatu gara, besteak beste, nekazaritza ekologikoa Nafarroan bizi duen egoerari buruz. Egun, 56 ekoizle daude kontseiluan, eta guztira 726,5 hektarea biltzen dituzte. Legasaren irudikoz, ingurugiroak eskaintzen dituen aukerez ohartu behar dira nekazariak. ■

Lur deslaila

PILI YOLDI



Jaime Mayor Orejak Euskal Herrian polizia gehiago behar dela iragarri du orain dela gutxi. Baina ez dakigu —ez omen dugu jakin behar— zenbat *efektibo per capita* daukagun ezta zenbat eduki behar dugun hemendik aurrera; bakarrik, gehienak informazio lanetan ariko direla, garai hauetan datuak direla behar den gauzarik premiazkoena.

Espiak modan ziren urteek erabat pasaturik diruditean, azken aspaldi honetan gure inguruan zelatariak besterik ez direla gogorarazten digute: batzuek erabat ahaztuta baguen ere, polizi nobeletan bezala, Zerbitzu Sekre-

tuak daude Estatu guztietan eta bakoitzak bere mota ezberdinetako poliziez aparte, merzenarioak ditu. Seguritateko profesionalak zenbatzen baldin baditugu, kontaezinak dira.

Eta orain kamerak izkina guztietan. Eskerrak eman beharko ditugu oraindik ere etxe barruan ezin dela grabatu. Zinta guztiak banan-banan miatzeko zenbat jende beharko lukete Barne Ministerioan? Ziur nago paroa dagoen jendearen artean baten batek hor lan egiteko aukera ikusi duela. Egia esan, ofizio horrek ez dit batere inbidiarik ematen; hiritarrak zirrikitu sekretuetan hatz

egiten, edota sudurzuloak ibili ondoren mukiak jaten, pixa egiten... ez deitu niri horretarako!

Den dena ikusten duen Jaungoikoa bezalako begi handi honen ondoren zer etorriko zaigu? Erdi txantxa, erdi futurismoa ematearren, soinu guztiak aditzen dituen belarri handi bat paratuko ote du, parabolikoa izango balitz bezala?

(Txiste bat azaltzen dute Guatemalan: Zerbitzu Sekretuetan edota Armadarako lan egiten ari diren informatzaileriei oreja deitzen diete kalean. Ezetz asmatu nola esaten den espainieraz barne sailburu?) X

Belarririk handiena

* **GURE AUKERAK**

KONTZERTUAK

Iruñea: Joaquin Sabinak eta Los Rodriguez taldeak kontzertua eskainiko dute igandean Anaitasuna pabilioian.

Elizondo: Mikel Laboak eta Ruper Ordorikak kantaldia egingen dute Elizondon gaur, hilaren 21. gaueko 22:00etan, herriko frontoian. Sarrera mila pezetaren truke izanen da salgai (40 libera).

Uhartea: Los Dinosaurios taldeak kontzertua eskainiko du herriko San Juan plazan gaueko 00:30etatik aurrera.

Iruñea: Artsaia Musik Cluben Ñu taldeak kontzertua emango du gaueko 23:30etan hasita.

ANTZERKIA

Iruñea: Narrentrepe taldeak *Eurforia* obra antzeztuko du Sanfermin Txikitoko jaien barruan, gaueko 21:30etan.

ERAKUSKETAK

Barañain: Atlantako Joko Olimpikoei buruzko argazki erakusketa ikusgai izanen da herriko Kultur Aretoan. Asteartetik larunbatera arratsaldeko zazpietatik zortzi eta erdiak arte izanen da zabalik erakustaldia, datorren larunbata arte.

Iruñea: Gotorlekuko Labea aretoan *Formak* erakusketa izanen da irailaren 29ra arte. Horretan, gaur egungo eskulturaren erakusgarri diren hainbat lan daude.

Bertiz: Jauregian *Garaia Nafarroan* erakusketa zabalik izanen da hilaren 28ra arte. Jauregia egunero goizeko hamarretatik eguerdiko ordu bata eta erdiak arte, eta arratsaldeko lauretatik zazpi eta erdiak arte izanen da zabalik.

Elizondo: Jose Luis Mayorren margoak ikusgai izanen dira urriaren 3ra arte herriko Arizkunenea kultur etxean.

LEHIAKETAK

Barañain: VIII. Argazki Lehiaketa antolatu du Udaleku Kultur Sailak. Abenduaren 9a baino lehenago bidali behar dira lanak parte hartu ahal izateko. Gaia librea da eta sari banaketa abenduaren 26an izanen da.

IBILALDIAK

Iruñea: Iruñeko Oberena taldeak mendi iteera antolatu du Ezkaurre tontorrera. Goizeko 08:00etan aterako dira autobusak Oberena taldearen egoitzatik. Joan nahi duenak gaurko arratsaldeko 20:00ak arte du denbora izena emateko 23 50 75 telefonoan. Helduentzat mila pezeta balioko du autobus txartelak, eta haurrentzat, berriaz, 400 pezeta.

nafarkronika

Patxi Uhartea

Antidisturbergkommando

Beste egunean Komisaldegira eraman minduten. Nire anai intsumisoaren bila ari dira eta, tira, bere zalantzak bazituzten. Hortaz, polizia zientifikoarengana eraman eta hamar minututan jakin zuten ni ni nintzela, eta ez beste inor. Aurkikuntza ikaragarria, zientifikoki, diot. Dena den, nahiko bisita interesgarria izan zen. Aspaldiko partez ez nintzen handik pasatzen eta aldaketak nabariak dira. Esate baterako, han ikusi nituen paisanozko polizia guztien trazak. Berrogei bat ikusi nituen horrela, eta zerrenda bat egiten ikusiko banitu, eta atzetik «guzti hauen artean nor da polizia?» galdera luzatuko bazidaten, ni seguru nago erantzungo nuela (zorrotz eta inteligenteki), «ezta bat ere ez!». Orduan, «denak dira polizia» esango zidaten. Imaginatu zein tontoa naizen edo zein itxura normala daramaten gaur egun. Zuen aukeran. Eta eman zidaten tratua erabat europarra. Are gehiago erromatar hiritarra (garai batekoa, noski) edo Ipar Amerikako hiritarra sentitu nintzen. Estokolmoko sindromearekin ez ote nintzen atera ere, nire zalantzak ditut. Gero aske uzteko egin genuen komedia ere edozein epaitegitan ezkontzeko bete behar diren arauak antzeztu ge-

nituen. «Zenbakiz berrogi duen poliziak sinatzen du», eta sinatzen zuen. «Ez dakit zenbatgarren poliziak sinatzen du», eta sinatzen zuen. «Detenituak sinatzen du», eta hala! kalera, kalera.

Ez nituen zoriondu beren jarrera zibilizatuagatik baina zer edo zer esateko irrikitan nengoen. Horrelako zer edo zer: etengabe etortzen ari diren Antidisturbergkommando horiek eta beraien Blitzkrteghführerrek horrelako portaera izango balute, ez genuke bizi dugun gatazka gordina biziko. Ez horren gordina, hori seguru.



asteko pertsonaiak



Xabier Diaz Esarte
Idazlea

Iaz bezala, aurtien ere Xabier Diaz Esarte idazle iruindarrak irabazi du Iruñeko Udalak Nafarroako Antzerki Eskolaren laguntzarekin antolatu duen Umeentzako Antzerki Testuen Lehiaketako lehen saria, *Ez geratu jokoz kanpo* lanarekin. Obrak, gaur egun haur jokoetan gertatutako aldaketak ditu ardatz, eta kontsumismoak inposatutako joera estandarizatuaz mintzo da Esarte. Jokoa bidaia bat planteatzen du idazle iruindarrak, eta horretarako, Alizia ipuinetako pertsonaia ezagunak ispilua bestaldea zeharkatuz egiten duen bidaia hartu du oinarri. Lehiaketa bereko erdarazko testuen lehen saria, bestalde, Antonio Garcia Mellana andaluziarrak irabazi du.



Miguel Sanz
Nafarroako Gobernuko lehendakaria

Miguel Sanz Nafarroako gobernuburu berriak joan den asteazkenean hartu zuen kargua. Diputazioko Jauregian 200 gonbidatu inguru elkartu ziren baina aipatzeko moduko absentiak ere izan ziren. Ez zen agertu, esate baterako, Javier Otano lehendakari ohia. Sanzek oposizioko alderdien laguntza izango duela ziurtat jo zuen bere mintzaldian eta elkarrizketa eta adostaduna eskaini zituen. UPNk derrigorrez beharko du laguntza, Parlamentuan minorian dago eta. Ustelkeria, bestalde, apenas aipatu zuen UPNkoak, eta «atzera begiratu ordez, aurrera egiteko unea» dela erran zuen. Sanzek kargua hartuta, atzo osatu zen Gobernu berria. Gainerako gobernukideek —bederatzi sailburu orotara— atzo eguerdian hartu zuten kargua.

ahaztu gabe!



BESTAK

Aranguren: Aldapako San Fermín Txikiari erronka botatzen dio urteoro San Bizentek. San Bizente urtarrilean izaten da, baina hilabete beltz horretan zaila gertatzen da jota dantzan aritzea zola izoztuaren gainean, eta, horregatik, arangurendarrek aspaldi erabaki zuten bestondoari aurre egiterakoan hobe zela udazken hasierako freskura neguko hotzaren gorria baino. Eta urteoro gauza berbera, Donefermin Txikia kezu eta erdi nerbiosturik agertzen da San Bizentek Arangurenara jende anitz eramaten duelako. Iruñerriko herri txiki-txikia da, eta aski dute hiru egun besta giro ederra sortzeko, eta ez bederatzi Uharteko adiskide *tipulazorroen* antzera. Tripa festak izaten dira; gaurkoan, konparazio batera, bada herri bazkaria eta herri afaria, biak elkartean. Bihar otamenez betetako etxe etxeko karrikadantza luzea, Bixente Setoain akordeolari nekagaitzak alaitua. Gainontzekoan, dantzak —mexikarrak, tiko-tikoak— eta kantuak. Taberna bakarra dago eta txintur egarrituak anitz, baina, horratx miraria, Kanaango ezteietan bezala edariak ederki biderkatzen dira eta ez da ase gabeko eztairik gelditzen.

adi!

Euskalerria Irratia FM 91,4

Egunero astelehenetik ostiralera, *Zokobetailu* goizeko 10.00etatik 11.00etara.

Xorroxin Irratia FM 107,5

Egunero 20.00etatik 22.00etara *Karakola segi hola* gazteendako saioa.

Aralar Irratia FM 106,2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara, bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkarrizketak.

Karrape Irratia FM 107,8

Astean zehar, 12.20etatik 12.35etara *Gauza guztien gainetik*, edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak.

Zizur Nagusia

Udal ikastaro eta tailerrak prest

Datorren ostiralean bukatuko da parte hartu ahal izateko izena emateko epea

Zizur Nagusiko Udalak hiruhilabete honetarako ekitaldi ugari antolatu du, urtero bezala. Haurrentzako eta helduentzako ikastaro eta tailerrak izanen dira eta kultura eta kirolak jorratuko dituzte, oro har. Parte hartu nahi duen orok, hil honen 27ra bitartean du izena emateko aukera.

Erredakzioa / Iruñea

ZIZUR NAGUSIKO UDALAK egitarau zabala prestatu du hiruhilabete honetarako, urtero legez. Herritar guztientzat, ikastaro eta tailer ezberdinak eta kirol ekitaldiak izanen dira. Parte hartu nahi duenak, datorren ostiralera bitartean du izena emateko epea zabalik. Ikastaro ezberdinen prezioari dagokionez, 1.000 eta 5.000 pezeta bitartekoa izanen da. Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du Zizur Nagusiko Udalak egitaraua antolatu ahal izateko.

Txikientzat, hamaika tailer prestatu ditu Udalak, euskaraz eta erdaraz. 4-6 eta 7-12 urte bitarteko haurrentzat, adibidez, musika eta dantza tailerra izanen da Kultur Etxean, eta 9 eta 12 urte bitartekoentzat ere sormen musikari buruzko beste ikastaro bat antolatu dute. Plastikako tailer batean ere parte hartu ahal izanen dute herriko neska-mutilek, 4 eta 11 urte bitartekoek. 12 eta 16 urte bitartekoentzat, berriz, eskultura tailerra izanen da. Antzerkia ikasi nahi duten haurrek ere izanen dute aukera, euskara hutsean gainera. Kultur Etxean izanen da ikastaroa. Lehen talde batean 9 eta 11 urte bitarteko haurrak izanen dira,



Antzerki eskolak ere antolatu dituzte Zizur Nagusian, euskara hutsean.

ARTXIBOKOA

eta bigarren batean, berriz, 12 eta 16 bitartekoak.

Kiroldegian, rokodromoan eta igerilekuan, bestalde, kultur jarduerak egiten dituzte datozen hilabeteetan zehar. Adin guztietako lagunentzat izanen dira. Besteak beste, gimnasia erritmi-koan, pilotan, igeriketan, judoan, kung-fun eta futboleko aritu ahal izanen dira partehartzaileak datozen hilabeteetan zehar. Helduentzat bereziki ere beste hainbat ikastaro prestatu ditu Zizur Nagusiko Udalak: gimnasia, yo-

ga, aerobic, tenis eta adinduentzako gimnasia egin ahal izanen dute, besteak beste.

Barañainen hainbat lehiaketa • Kultur ekitaldiek ere izanen dute lekuri Zizur Nagusiko Udalak antolatu egitarauan. Bideo, dantza eta argazki ikastaroak izanen dira, besteak beste, baita danborra eta gaita jotzen ikasteko tailerrak ere.

Zizur Nagusian bezala, Barañainen ere egitarau zabala prestatu du bertako Udalak. Ekitaldi

ugari izanen bada ere, urtero bezala argazki eta literatur lehiaketak izanen dira nagusiak. Zehazki, argazki lehiaketaren zortzigarren aldia izanen da aurten goa, eta literatur lehiaketa, berriz, zazpigarrenez antolatu du Barañaingo Udalak. Literatur lehiaketari dagokionez, erdaraz izanen da eta azaroaren 12a baino lehen aurkeztu beharko dira lanak. Argazki lehiaketako lanak, berriz, abenduaren 9an aurkeztu ahal izanen dira beranduenez. X

Bera

'Ttipi-ttapa' Interneten irakur daiteke orain

■ Itxuraz eta edukiz ere aldatua agertu da

Erredakzioa / Iruñea

BORTZIRIETAKO Beran egoitza duen *Ttipi-ttapa* hamabostekariak hainbat berrikuntza agertu ditu azken zenbakian. Bortzi-riak, Baztan, Malerreka eta Leizaldeako berriak jasotzen dituen aldizkari honek lau orrialde gehiago hartu ditu 189. zenbaki honetan, eta itxura eta edukil dagokienez aldatua iritsi da harpidedunen etxetara. Besteak beste, kultura orrialdea aipatzekoa da aldaketen artean.

Aldizkarian begibistakoak diren aldaketek gain, gainera, mundu zabaleko ordenadoreetan ere izanen da *Ttipi-ttapa* he-

mendik aurrera, Interneteko edizio elektronikoaren bitartez. Nafarroako Internet Elkartearen laguntza izan du *Ttipi-ttapa*-k pauso hau eman ahal izateko. Aldizkari arduradunek azaldu dutenez, «Interneten bidez, bertakoak izanik lana edo ikasketak direla-eta gure herriotatik kanpo bizi diren lagunek, hemengo aktualitatea puntualki jarraitzeko aukera izanen dute». Gogoratu dutenez, halaber, «Internetek bi norabide ditu, eta informazio hartzailea informazio emale izan daiteke». *Ttipi-ttapa*-ren Interneteko helbidea honako hau da: <http://.encomix.es/ttipi-ttapa>. X

Lizarra

Euskal Herriko Marmitako Lehiaketa hilaren 29an

■ Peñaguda elkarteak eta ikastolak antolatu dute

Erredakzioa / Iruñea

LIZARRAKO Peñaguda elkarteak Euskal Herriko XIX. Marmitako Lehiaketa antolatu du, Lizarrako ikastolarekin batera. Lehiaketa hilaren 29an izanen da, datorren igandean, baina aurkezpena gaur bertan egiten dute elkar-terko arduradunek.

Peñagudako kideek oso garrantzitsutzat jo dute Lizarrako lehiaketa. Marmitako txapelketa honek Iparraldean du hasiera, eta Hendaia eta Irungo marmittakogileek bultzatu zuten. Denboraren poderioz Euskal Herri osora zabaldu da marmitakoen txapelketa. Lizarran, hain zuzen,

Euskal Herri osoko partaideak izanen dira. Guztira, 126 elkarte inguruk hartuko du parte XIX. Lehiaketa honetan.

Igande goizeko 9.30etan egiten diete harrera partehartzaileei. Elkarte bakoitzeko kideak orubete geroago hasiko dira lanean. Bukatutakoan, epaileak jakinaraziko du bere erabakia. Ondoren, herri bazkaria egiten dute marmitakoekin, eta arratsaldeko bost eta erdietan sariak banatuko dituzte, Euskal Herriko Marmitako Lehiaketaren hemeretzigarren ekitaldia antolatu ahal izateko bost milioi pezetako aurrekontua behar izan du Peñaguda Elkarteak. X

Berriozar

Emakumeendako ikastaroak antolatu ditu Albak

■ Asteartean zabalduko da izena emateko epea

Erredakzioa / Iruñea

EMAKUMEENDAKO ikastaroak antolatu ditu Berriozar-ko Alba elkarteak, Berriozar-ko Udalaren eta Emakumearen Nafarroako Institutuaren laguntzarekin. Parte hartu nahi duenak datorren asteartetik ostiralera bitartean izanen du izena emateko epea, hilaren 24 eta 25ean, goizeko 10:30etatik 12:30ak arte egonen da zabalik Emakumearen Zerbitzuko bulegoa, eta hilaren 26 eta 27an, berriz, arratsaldeko 18:00etatik 20:00ak arte. Telefonoz deitu nahi duenak, 30 16 31 da bulegoko zenbakia. Antolatzaileek parte hartzeko deia eskatu diete jada herriko emakume guztiei, eta ikastaroetako gaiak guztien interesekoak izanen direla azpimarratu dute.

Osasunaren inguruko ikastaroa izanen da lehendabizikoa. Horren barruan, erlaxazioa eta familiaren kontsumoaren antolaketa eta 65 urtetik gorako emakumeek beren osasuna zaintzeko hartu beharreko neurriak jorratuko dituzte besteak beste. Gazteendako heziketa sexual- lart buruzko zikloa ere izanen da.

Ikastaro honetan, gizonen eta emakumeen sexualitateari buruzko informazioa jasotzeaz gain, anti-sorgailuak ere aztertuko dituzte. Lana aurkitzen laguntzeko ikastaroa ere izanen da. Horn barnean, oigbideei buruzko orientazioa landu eta lan eta formakuntza ahalbi- deak ezagutu ahal izanen dituzte partehartzaileek.

Komunikabideei buruzko ikastaroan, bestalde, berriki interpretatzen eta egunkariak irakurtzen ikasiko dute ikastaroko partaideak. Medioak ezagutu, egunkarietako azal- lak aztertu, berriak konpara- tu eta antzekoak egiten di- tuzte komunikabideei buruz- ko ikastaro honetan.

Mehetzeko dieten mitoe- k ere izanen dute lekuri em- akumeendako antolatutako ikastaroetan, eta horien arris- ku eta errakuntzei buruz ari- ko dira, dieta ezberdinak eta elikagaien kalitatea ezagutu- z. *Elikaduraren printzipioak* ikastaroa ere antolatu dute. Bertan, elikagaien sailkapen- taulak eta kalitatea aztertu eta landuko dituzte besteak beste.

Arte plastikoei buruz ere izanen da zer ikasi: txantiloiz- nola pintatu, igeltsuaren apainketa, polikromatuak, berunarekin ispiuak nola apaindu eta abar. Azkenik, jantzigintza izanen du azter- gai azken ikastaroak. Bertan erabilera industrialeko tekni- kak ikasiko dituzte. X

egitaraua

Asteazkena, 25

9.00

Harrera.

16.00

Nafarroako Gobernuko Nekazaritza eta Abeltzaintza kontseilariak biltzarrari hasiera emanen dio.

16.30

Hitzaldia. *Ekonomia, ekologia eta nekazaritza garapena.* Jose Manuel Naredo.

17.45

Mahaingurua. *Nekazaritza ekologikoa Andaluzian, Extremaduran eta Nafarroan.* Francisco Casero, Ignacio Amian (Andaluzia), Juan Labrador, Julia Maestro (Extremadura), Jesus Aranda, Angel M^a Legasa (Nafarroa).

18.45

Eztabaida.

19.30

Kartel saloa.

Osteguna, 26

9.00

Txostenen aurkezpena.

Frantziako nekazaritza ekologikoaren sektorearentzat egokita den ikerketa eta esperimentazioa nola egituratu. Cristophe Beau. Tokian tokiko nekazaritza ekologikoaren garapena nola bultzatu. CIVAMen estrategia Frantzian. Gilles Renart.

10.00

Eztabaida.

11.00

Txostena. *Partehartzea, nekazaritza garapen integratuaren ardatza.* Karmenxu Intxaurraga.

12.00

Eztabaida.

12.45

Ahozko komunikazioak.

16.00

Aldibereko txostenak eta ahozko komunikazioak. *Ekologia eta soro-landareen kontrola.* Carlos Zaragoza Larios. *Abeltzaintzaren integrazioa nekazaritza ekosistemetan, arazoak eta deskontaminazioa.* Francisco Diaz Fierros.

18.45

Eztabaida.

17.30

Ahozko komunikazioak.

19.00

Espainiako Nekazaritza Ekologikoaren Elkartearen (ENEE) batzar nagusia.

21.30

Afaria.

Ostirala, 27

9.00

Txostenak eta ahozko komunikazioak. *Intsektu baitagarrien ekologia.* Elisa Viñuela. *Ekologia eta lurteko biodibertsitatearen alderdi funtzionalak.* Rafael Jordana.

10.00

Eztabaida.

12.00

Taillerrak (sei antolatuta dituzte)

16.30

Taillerrak (hamabi guztira).

18.30

ENEEren bilkura. Ondorioak.

19.30

Biltzarraren amaiera ekitaldia.

Nafar ekoizle ekologistak

Espainiako Nekazaritza Ekologikoaren Elkarteak biltzerra egingen du Iruñean

Espainiako Nekazaritza Ekologikoaren Elkarteak (ENEE) bigarren biltzerra egingen du hilaren 25 eta 28 bitartean Iruñean. ENEE antolatuta du bilkura eta hauek izan ditu laguntzaile: Nafarroako Nekazaritza Produkzio Ekologikoaren Kontseilua, Bio Lur Nafarroa Nekazaritza Ekologikoaren Elkarte, Nekazaritzaren eta Hezkuntzaren Kudeaketa eta Teknika Institutuak, Nafarroako Unibertsitatea eta Nafarroako Gobernuak.

Edurne Elizondo / Iruñea

ESPAINIAKO Nekazaritza Ekologikoaren Elkartearen bigarren biltzarrak Estatu osoko nekazari, abeltzain, teknikari eta adituak bilduko ditu Iruñean datorren astean, *Nekazaritza ekologikoa eta garapena* lelopean. Lau egunetan, sektorearen egoera aztertu eta eztabaidatu eta esperientziak eta ideiak trukatu dituzte Nafarroako Unibertsitate Publiko Arrosadiako kanpusean.

Nafarroan, hain zuzen, eta aurtengo abuztuko datuen arabera, 56 ekoizle dira Nafarroako Nekazaritza Produkzio Ekologikoaren Kontseiluko (NNPEK) kide; horietako 50 nekazariak dira, bost abeltzainak eta bakarra erlezaina. Guztira, 726,5 hektarea daude gure herrialdean nekazaritza ekologikoari eskainiak, eta beste 1.600 hektareatan zuhazti baxuko artzaintza egiten da.


Nekazaritza ekologikoaren produkzioa Europako Batasunak arautzen du oro har eta Estatuan, martxora arte, Nekazaritza Ekologikoaren Kontseilu Arautzaileak (CRAE) ziurtatzen zituen produktuok. Erakunde hau, baina, martxoaren 31an desagertu zen eta autonomi elkarten esku utzi zuen eskumen hori. Gure herrialdean, berehala eratu zen Nafarroako Nekazaritza Produkzio Ekologikoaren Kontseilua. Angel Maria Legasa da bertako buru.

NNPEKen eginbehar nagusiak hiru dira Legasaren aburuz: produktuak ziurtatu, nekazaritza ekologikoa bultzatu eta aholkuak eman. Zeregin hauek betetzeko, Kudeaketa eta Teknika Institutuen eta Bio Lur Nekazaritza Ekologikoaren Elkartearen laguntza du kontseiluek. Nekazaritza ekologikoan hasi nahi duen nekazari orok lehen unetik behar duen laguntza jasotzea dute helburu. Bada, hala ere, nekazariak kontseiluko ziurtapena eskuratu baino lehen bete behar dituen hainbat baldintza. Zehazki, NNPEKen baitan egon behar dute ekoizlearen zelaiek bere produktuek bertako zigilua lortzeko. Bertan, gainera, ezin izanen ditu sintesiko produktu kimikoak eta ongarri mineral disolbagarriak erabili.

Angel Maria Legasak azpimarratu duenez, pixkanaka egin behar du aurrera nekazaritza ekologikoan jardun nahi duen nekazariak. «Poliki gauzatu behar du lurraren eraldaketa». Hori dela eta, lurra garbitzea da lehen urteko betebeharra. Hortik aurrera, nahiz eta nekazaritza ekologikoa egin, Nafarroako Nekazaritza Produkzio Ekologikoaren Kontseiluaren ziurtapena ez du be-

LURGINTZA EKOLOGIKOA NAFARROAN

Nafarroan landutako azalera 1996ko abuztuan (hektareatan)



Industria kopurua

	Nafarroan	Espainian
1993	3	114
1994	5	157
1995	18	191
1996	18	

Azalera hektareatan

Lur-eremu kopurua

	Nafarroan	Espainian	Europar
1993	14	753	21.770
1994	18	904	29.958
1995	40	1.024	42.786
1996	47		

	Nafarroan	Espainian	Europar
1993	151	11.675	578.564
1994	287	17.209	752.420
1995	554	24.079	963.124
1996	726,5		

Iturria: Biolur Nafarroa

J. APEZTEGIA



Nekazaritza ekologikoa gero eta indar handiagoa ari da hartzen.

JOXE LACALLE

rehala lortuko. Kontseiluko teknikariek egindako ikerketen arabera ziurtatu da lurraren eta bertako produktuen kalitatea.

Eremu horretan eta Nafarroako nekazaritza ekologikoaren

alorrean, oro har, funtsezkoa da Bio Lur Nafarroa elkarteak egingen duen lana. 1991. urteko urtarilean sortutako talde honetako kide da Jose Uranga eta berak azaldu digunez, «elkarri la-

guntzea eta elkartasuna, hezkuntza eta nekazaritza ekologikoa bultzatzea eta hedatzea» dira elkartearen oinarri. Azken honi dagokionez, aipatu behar da *Savia* aldizkaria duela Bio Lur taldeak kalean. Esfortzu handia egin dute bertan nekazaritza ekologikoaren berri eman ahal izateko.

Osasuna naturarentzat • Angel Maria Legasaren ustez nekazaritza ekologikoaren mamia azaltzen duen esaldia aukeratu du NNPEK-k lelotzat, *Osasuna naturarentzat, osasuna bizitzarentzat* alegia. «Oraindik nekazaritza ekologikoaren produktuak erosteko arrazoi nagusia norberaren osasuna bada ere, urte batzuen buruan, naturaren osasuna zaintzea izanen da».

Nekazaritza konbentzionala, finean, ingurugiroa sekulako aukera dela konturatu behar da NNPEK-ko lehendakariaren ustez. «Eta aukera hori hemen, mendialdean, Gipuzkoan, Bizkaian aprobetxatu behar dugu, bestela ezin izanen baitu lehiatu bertako nekazaritzak». Merkatu ikerketek ere, nekazaritza ekologikoak etorkizun ona izan dezakeela azaltzen dute, baldin eta bi baldintza betetzen badira: alde batetik, ongi ziurtatu behar dira produktuak —«eta horretan egin behar du lan kontseiluek», eta bestetik, prezioen arteko aldeak ez du % 20 edo 30 baino handiago izan behar. «Ildo horretatik,

Nekazaritza ekologikoaren
bidetik Nafarroan

Aranzadiko baratzeetatik Iruñeko merkatuetara moztu eta berehala eramaten dituzte barazkiak.

JOXE LACALLE

teknika hobetzea da tartea gutxitzeko bidea».

Baina nekazaritza ekologikoak baditu arazoak ere, hamaika gainera. Sektore txikia da, bate-tik. Bestetik, bolumen txikia mugitzen duenez, arazorik larriena-tako bihurtu zaio komertzializazio eta distribuzioa. «Ez da banaketa egiten produkturik ez dagoelako, eta banaketa egiten ez denez, ez dago produkturik. Arazo honi, baina, ez diote nolana-hiko konponbidea eman nahi Nafarroan. Nekazaritza ekologikoaren inguruko elkarteek eta kontseiluak berak zirkuitu laburren sistema defendatzen dute egokienetzat. «Ekoizlea eta kontsumitzailea gero eta hurbilago, gero eta hobeto, bere produktua-ren gaineko kontrola galtzen baitu bestela nekazariak», nabarmendu du Legasak.

Produktuak kontsumitzailearen gana helarazteko gure herrialdean dauden bi modu adibide egokitzat jo ditu Nafarroako Nekazaritza Produkzio Ekologikoaren Kontseiluko buruak: «Aranzadiko baratzeak ekosistema idealaren eredu dira. Dibertsitate handia dago, eta bertako produktuak bildu eta bi ordura, Iruñeko merkatuetan dira kontsumitzaileen esku». Bestetik, Artariainen hama hamahiru nekazari osatu kooperatiba aipatu digu Legasak, Trigolimpio izeneko. Nekazarien esku dago produktuaren gaineko kontrol osoa, lantzen dutenetik, bildu eta kontsumitzaileari eramaten diotenera arte.

Nafarroako kontseiluak berak ere, komertzializazioaren arazoari

konponbidea bilatu nahian, kanpaina berezi bat jarriko du laster abian, *denda laguntzaileak* lortzeko. «Kontsumitzaileak ere baidu honetan zeregin garrantzitsua. Gure etxe ondoko dendan nekazaritza ekologikoaren produktuak eskatzeko ohitura hartu behar dugu».

Dendarien eta nekazarien artean konpromezua sortu nahi du NNPEK-k: «Nekazariak bere produktuak eramateko konpromezua hartzen du eta dendariak horiek saltzeko». *Dendari laguntzaile* izendapena lortzeko, gutxienez hiru produktu ekologiko

saldutzea behar ditu dendariak, nekazariak soroan bere produktuei jarritako etiketan agertzen den biltze-data, jatorria eta iraungitze-data errespetatu eta NNPEK-ko teknikarien azterketak onartu, bai jakinaren gainean dagoenean, bai ez dagoenean ere. Kanpaina Iruñean hasiko da.

24.000 hektarea Estatuan • Altonen moldeetatik gertu dago nekazaritza ekologikoa: laborantzaren txandaketa, dibertsitatea eta bazterretako landaretza dira izurriteari ihes egiteko biderik egokienak. Legasak azpimarratu

duenez, baina, «ez dugu pentsatu behar nekazaritza ekologikoak gure arbasoen garaletara itzultzen gaituenik. Egungo teknika-ren onena ere gure alde erabili behar dugu. Lan profesional eta serioa dago nekazaritza ekologikoaren atzean».

Hala ere, tarite txikia betetzen du oraindik nekazaritza osoaren barruan. Uztailaren bukaerako datuen arabera, Espainiako Estatuan mila produktore inguru zeuden nekazaritza ekologikoan jardunean, 24.000 hektarea inguru guztien artean. Estatuko nekazaritzaren % 1era ere ez da

ailegatzen kopuru hori. Europako Elkartearen baitan, Austria da nekazaritza ekologikoa gehien jorratu duena. 23.000 ekoizle inguru daude bertan eta nekazaritza osoaren % 7 betetzen du nekazaritza ekologikoak. Austriarena, baina, aparteko adibidea dela erran beharra dago, herri hau bazter utzita Europako Batasuneko beste guztien artean ere ez baitute kopuru bera lortzen. Austrian urteak eman dituzte nekazaritza ekologikoaren gaia aztertzen, eta honen inguruan sortutako lehen elkarteek 30 urte inguru dituzte jada.

Famili arteko ustiaketa eta agroindustria

ESPAINIAKO Nekazaritza Ekologikoaren Elkartearen bigarren biltzarren barruan, hitzaldiak, mahai-inguruak eta tailerrak egiten dituzte datoren asteazkena eta larunbata bitartean. Euskal Herriko Nekazarien Elkarteak (EHNE), hain zuzen, nekazaritza ekologikoaren barruan dauden estilo ezberdinei buruzko eztabaida antolatuta du tailerren alorrean. Ostiralean izanen da, arratsaldeko lau eta erdietan. Sindikatuko kide Felix Ajuria arduradunak eman digu horren berri.

EHNE sindikatuak, industria intentsiboaren aurrean, famili arteko ustiaketen aldeko apustu

garbia egin du, eta nekazaritza ekologikoa dagokionez ere, bereizketa bera defendatzen du. Izan ere, nahiz eta Europako Batasunak ezartzen duena arautegi bakarra izan, badira nekazaritza ekologikoa egiteko estilo ezberdinak ere. Andaluzian, adibidez, nekazaritza ekologikoaren produktioaren % 90a esportatu egiten dute. «Nekazaritza konbentzionalean bezala, agroindustria sortzen ari da hemen ere. Guk ez dugu estilo hori defendatzen. Nekazaritza ekologikoak nekazaritza garatzeko eredu izan behar du, ingurugiroa defendatu eta kalitatezko produktuak eskaintzen di-

tuen nekazaritza izan behar du, nekazaritza guneetan lanpostuak eutsi eta berriak sortzen dituen eredu. Komertzializazioaren aldetik, gainera, eskualdeetako garapena bultzatu behar du», azaldu du Felix Ajuria.

Komertzializazioarena, funtsezko gaia da EHNEk aldarrikatzen duen nekazaritza estiloaren barruan. Eta sindikatuak proposatzen duen merkaturatzeko ereduaren oinarria zirkuitu laburrak dira, «hori baita produktu horiek dituzten beste bako-lore batzuk transmitituko dituen sistema».

Felix Ajuriaren irudiko, Nafarroako Nekazaritza Produkzio Ekologikoaren

Kontseiluak (NNPEK) eta EHNEk bat egiten dute neurri handi batean aukeraturako nekazaritza ekologikoaren estiloari dagokionez. «Europako araudiak horri buruz ezer aipatzen ez badu ere, saiatu dira salmenta zuzenari garrantzia ematen eta beste zirkuitu komertzial batzuk sortzen».

Euskal Autonomi Elkarteari (EAE) dagokionez, baina, arazotzat jotzen du Ajuria Eusko Jaurlaritzaren kalitate politika, «labelen inguruan osatu baitute». Nafarroan ez bezala, gainera, oraindik ez da EAEn nekazaritza ekologikoa arautuko duen erakundea eratu. Estatuan ne-

kazaritza ekologikoa kontrolatzen duen kontseilua (CRAE) martxoaren 31n desagertu zenean, autonomi elkarteek hartu behar zuten esku hori euren esku. Nafarroan halaxe egin eta NNPEK sortu zen. EAEn, egun hauetan da eratzeko bertako kontseilua. «Oraindik nekazaritza ekologikoa egiten duten baserriak babesik gabe daude EAEn». CRAE desagertu zenean 18 nekazari zeuden bertan eta 40 bat hektarea biltzen zuten guztien artean. Ajuriaren irudiko, baina, EAEn kontseilua sortzean, 60ra igo daiteke nekazaritza ekologikoan dihardutenen kopurua. X

Xanti Begu... lain

Itoitz bai, 'Itoiz' ez

■ Itoizko gaiari buruz ez dut sekula santan idatzi, eta gaur eginen dut.


Hasieratik garbi utzi nahi dut Itoizko urtegiaren aurkako Koordinakundearekin eta Itoitzeko Elkartasunarekin bat natorrela, eta jakina, Nafarroako Gobernuaren, Espainiakoaren, Guardia Zibilarren, Poliziaren eta zinpeko gardien aurka, batez ere azkeneko hauek guztiak behin baino gehiagotan erakutsi dituzten jokabide bortitzak, indarkeriazkoak, ilunak, egia behin eta berriz ezkutatu, kontuak argi eta garbi ez azaltzeagatik, babesgune naturalak beren komenentziaren arabera aldatzeagatik behin baino gehiagotan eta abar.

Auzitegi Nazionalak aldi batean edo bitan eman die arrazoia Koordinakundekoei, eta bes-

askotan ikusi ahal izan baitut izen hori erabili dela modu erdaldunean, *Itoiz* alegia.

Nik dakidanez behintzat, adituek diote, herri horren forma egokia euskara batuan *Itoitz* dela eta horrela ikus daiteke, esate baterako, azken hiztegi eta entziklopedia modernoetan, estilo liburuetan eta abar. Beraz, badirudi alde horretatik ez dagoela inolako zalantzarik, baina dena den, orain dela gutxi arte, behinik behin, sarritan ikusi ahal izan da aipaturiko izena gaizki idatzita, bai pankarta, bai txapa, eranskailu, idazki eta baita karteletan ere. Kontuz! Ez naiz esaten ari beti gaizki idatzi denik, ezta gutxiagorik ere, baina bai askotxotan, gehiegitan ziu-rrenik.

Koordinakundeko baten bati esan nion ohar-



taldetik, jende askok dakigu, edo gutxienez susmatzen dugu Itoizko urtegiaren ura, neurri handi batean behinik behin, kanpora eramatekoa izanen litzatekeela.

Gorago esandako guztia berresteko, hemen erantsiko dut behin baino gehiagotan eman die-dala nire laguntza apala Koordinakundekoei manifestaldietara joanez eta beste moduren batez ere bai. Eta baieztatzen dut, egoera aldatzen ez den bitartean era nabarmen batez behintzat, jarraituko dudala ematen nire laguntza fisiko, ekonomiko eta morala Itoizko urtegiaren aurkako Koordinakundeko kideei.

Hala eta guztiz ere, badago gauzatxo txiki bat *kritikatu* nahi diodana Itoitzen aldeko jende guztiari, hau da, Koordinakundekoei eta beren aldekoiei. Errietatxo txiki hau, *Itoitz* izenari ematen zaion tratamenduari buruzkoa da. Izan ere,

pen berbera aspalditxoan, eta orain hemen errepikatzen badut ez da inolako asmo txarrik dudalako, guztiz alderantziz baizik, hots, kritika konstruktiboa egitearren.

Nik uste dut alderdi guztietan borrokatu behar dugula, bai uraren aferan eta baita gure herri izenen erabilpen zuzenaren alde ere.

Erdaldunek ere ongi idatzi eta esan beharko lukete hitz hori, baina horren zain baldin bagaude, jai dugu. Hori horrela dela milaka aldiz demostratu digute erdal komunikabideek konparaziora.

Horregatik guztiarengatik nik aldarrikatzen eta eskatzen dut *Itoitz* hitza ageri den guztietan ongi erabil dezagun, horrela jende guztiak behingoz ongi ikas, esan eta idatz dezan.

Miarritze-k, adibidez, mundu guztiak daki *tz*-duela, nahiz eta erdaldunek *Biartz* idatzi. ■

Klasiko bitxi, arrotz klasiko

Joxemiel Bidador

Bitoriano Huizi
etxarriar
gramatikagilea

■ Gaur betetzen dira 58 urte Bitoriano Huizi Gonzalez-Billazon sortetxean zendu zela. Etxarri-Aranazko Krisostomoren 1860.eko irailaren 6an jaioa, hantxe zendu zitzaigun. Karlista amorratua, kozkorreko pertsona bazen. Apaiz karrera egin eta erretoze izan genuen Abaurrepea, Larunbe, Unanua, Arakil-Uharte, Altsasu eta Urdialin herrietan. Halako bizitzaz unaturik antza, 1906.ean josulagundian sartu zen, eta Loiolan nahiz Bilbon jardun zuen zeregin berrian. Nolanahi ere, loiolatarren arauz berriz ere asperturik, Kubara abiatu zen 1922.ean, berriz ere apez soil gisa. Laster itzuliko zen Sakanara, betiko.

Liburu bakarra argitaratu zuen, guk dakigunez behintzat, joan zen mendeko ondarraren ageri *Manual de gramática bascongada dedicado a la excelentísima Diputación de Navarra y al Seminario Conciliar de Pamplona*. Lan honekin lotu nahi zituenak hasiera-hasieratik azaldu zituen: «Mi objeto es sujetar a reglas, en dialecto navarro, el baskuenz (sic) que anda hecho jiras y desfigurado, sin guía fija aun entre bascongados, y extenderlo entre castellanos como el mejor baluarte de nuestras venerandas tradiciones y fueros», baita honelakoxe ere: «Ez-tezaket izan nik asmorik iyori Euskara erakusteko, batya truditzen zait gaurko egunian Iparaldeko Euskalerrietan dagon itz edo mintza modua ikasi eskero elkar aditi gentzakela eta ez giñakela galduko emendi kampuan, eta artarako nei nauzke eman erregla batzuk nere Euskara erraz ikasteko edozeiñek, estet uste iñoren jakindurtarik mermatuko dutela getonetar». Ez da gutti gero!

Ikusi denez, bi hizkuntzatan egin bi sarrera ezberdin ostean, gaiaka dakar testua: alfabetoa, artikulua, izenak, deklinabidea, izenordeak, izenondoak, aditza, eta ahitzeko, benetan interesgarriak diren Arañatz aldean jaso hiztegi laburra eta hainbat esaldi nahiz elkarrizketa. Azken orrialdeetan dotrina kontuak, zenbait ipuin eta Aralarko San Migelen omenezko kantak agertarazi zituen. Ez dira asko Etxarrikoak ondu liburuaz arduratu eta kezkatu direnak. Are gehiago dena, Latxagak, *Príncipe de Viana* aldizkariak zuen euskarazko gehigarrian — 1974.eko maiatzean —, Bitoriano Huizi Etxarriko seme ospetsua izenburuko artikuluxkan honela zioen: «Oso gutxi ezagutzen dute gizon argi onen lana. Aita Billasartek ez du aipatzen, ezta Mitxelena ere. Intxaurrendok, berriz, Iruñako apaiztegiaren egindako itzaldi batean agertzen digu. Oixtian Rafael Carasatorre Vidaurrek *Barranca Burunda* aleki mardula ontzerakoan gure Huizik zekartzen hiztegi apurra ere ballatu zituen. Azkenik, *Nafarroako Entziklopedia Itzel* delakoan badatorkigu Fernando Perez Ollok Etxarrikoaz egin sarrera laburra, baina bertan, Huizik taxutu zuen erderazko atarikoari baizik etzalo alpamen egiten, geure uste apalez, euskarazkoak berebiziko interesa eskaintzen digula euskaldunoi. Bitoriano bera mintza bedi: «Notzkua da euskera? Batzuek diote Zeltiberuengandik datorrela, beste batzuek gizonari izkuntza aztu zitzaion demborartatik, beste batzuek berriz lembizi Españara edo Ezpañara etorri ziranak ekarri zutela, izanik lembizi nazionetan zabaldu zan izkuntza, eta ez zala izan demborarik Euskera bagekorik gendak emen sartu ziran eskero. Genuagoko eunkadetan berrira indarra artu bearrian, artian izan zitūben contrario denak baño aundiagokua sortu zitzaion Erdara edo Gaztela, eta onek betti eta gaur getago, bere desafio eta kastiguaki nei dau debekatu ez bakarrik erakuslekutan baita suondotan ere aztu dalen guztias; ontaroko erdaldun denak elkartzen dira eta guchi bllatuko dira ongi begratzen diotennetatik ¡Zeiñ aundia ote da Gaztelak Euskerari dion gorrotua! Ezta aditi eta entzun nai bere buresua duela, nei lauke au ondatu lurretik. Gendu dizkigu gure ainiñako usario, lege, eta bizi modu gastu guchiñak: izkuntzau ezñ dugu gendu oraindik bintzet gure erri batzuetan, au dau contrario aundia, onek trauntan deben artian, guk Euskaldunak ez gera flutuko Gaztelareki eta bere agindu falsueki, onek trauntan deben bitartian Euskaldunak beti Euskaldun, gu ola ezaguturik, egiñen ditizte alegiñak gendza guri ere geren izate pare gablau, gure biotz animetan dagon izkuntza eta biztau, zergatik ongi dakite gendurik erri bati bere asmo eta barrumbeko pentsamentuak ezagutzera emateko modua, genzen zatola bere izatia, bere bizitza. ■



Iruñeko Hiria xake tomo irekiko seigarren jardunaldiko partida, 1996ko urtarrilaren 2an jokatu.

Antonio Alcaraz (Espainia) — Antonio Lisarri (Euskal Herria), 1.960 ELOkoa.

1.d4,Zf6; 2.Zf3,g6; 3.Ag5,Ag7; 4.c4,0-0; 5.Zc3,d6; 6.e4,c6; 7.Ae2,Ag4; 8.Zd2,Ae2; 9.De2,Db6; 10.Zb3,a5; 11.Ae3,a4; 12.Zc1,Da5; 13.0-0,bZ-d7; 14.Gb1,e5; 15.d5,Zc5; 16.f3,Zh5; 17.Zd3,Zd3; 18.Dd3,Zf4; 19.Af4,f4; 20.c6,Dc5 xa; 21.Eh1,c6; 22.b4,b3; 23.b3,De3.

Dama trukatzea egokia ote da? Peoia arrisku eremuan sartuko da ala ahula bihurtuko? Gogoe-

ta ondo egiteak partida erabaki lezake.

24.De3,e3; 25.Za4,Ad4; 26.fG-d1,c5; 27.Gd3,fG-b8; 28.Zc3.


Ikus koadroa. Txuriek analisi okerra egin zuten, eta orain partida pikutara bidali dute.

28....,Gb3; 29.Gb3,Ga1 xa; 30.Zb1.

Ariketa erraza da 'Gb1' edo 'Gd1' jokaldiekin zer gertatzen zen ikustea. Ez dago txurientzako salbaziorik.

30....e2; 31.Ge3,Ae3.

Hurrengoan matea zenez gero, txuriek etsi zuten. Momentu klabean ez zuten ongi gogoeta egin.



Sanfermin Txikitoak ere mundialak dira

Asteburu honetan Aldapako San Ferminen omenezko jaiak ospatuko dituzte

Askoren aburuz, munduan parekorik ez daukaten uztaileko Sanfermin jaiak bezain mundialak dira Iruñeko Navarrerria auzoan ospatzen dituzten Sanfermin Txikitoak. Jaiok asteburu honetan ospatzen dituztenez, iritzi horrekin bat datozenek ostiral, larunbat eta igande mundiala igaro ahal izanen dute, Navarrerriako Jai Batzordeak prestatu duen jai egitarau mardularen laguntzaz.



Osiris Goikoetxea izanen da alkate txikia eta Daniel Gomez bere zinegotzia

OSKAR MONTERO

Juan Kruz Lakasta / Iruñea

1590. urtera arte iruindarrek urriaren 10ean ospatzen zuten San Fermin eguna. Sanfermin jaiak, jakina, egun horren inguruan egiten zituzten ordura arte. Urria, baina, hotza eta euritsua izaten ohi da Iruñea zaharrean, eta gauzak horrela, XVI. mendeko hondarreko urte horretan Iruñeko alkateak festazaleez errukitzeko, eta San Fermin eguna sasoi beroagoetara aurreratzeko eskatu zion artzapezpikuari. Artzapezpikua, kristau ona bera, errukitu egin zen, eta uztaillaren 7ra aldatu zuen ospakizuna.

Harrezkerotik, Iruñeko seme-alabek Sanferminak uztaileko estreinako hamabostaldian ospatu zituzten. Mende honetako 40ko hamarkadan, alta, Navarrerria kaleko koadrila batek San Ferminen omenez parranda egiteko tenorean udazkeneko freskura aprobetxatzea erabaki zuen. Iruñean bi San Fermin daudela probetxatuz (Iruñea burguetan banatuta zegoeneko kontua da hori: San Fermin handia San Lorenzo elizan dago, eta Txikitoa Alde Zaharreko beste puntan, Navarrerria auzoko Aldapa kalean), iraileko hirugarren asteburuan Aldapako San Ferminen omenezko lagunarteko jaiak ospatzen hasi ziren.

Denbora pasa ahala, hasieran lagunarteko ospakizuna zena emeki-emeki Iruñea osoko festa bilakatu zen. 1978. urtean Sanfermin Txikitoek goia jo zuten. German Rodríguez heriotza eragin zuten istilu larrien ondorioz, uztaileko Sanferminak ber-

tan behera geratu ziren urte hartan. Irailean Iruñea osoa kalera atera zen, euren jaien iraupena ziurtatzeko xedearekin. Zezenketak, entzierroa, erraldoiak, kilikiak, zaldikoak, zezen-suzkoa... Sanfermin handietan dagoen guztia izan zen urte horretan Sanfermin Txikitoetan.

Alfredo Jaime jaun txit agurgariaren eta bere *jalmítaden* eskutik, 90eko hamarkadaren hasieran aro berria bizi izan zuten Sanfermin Txikitoek. Maria Dolores Pradera eta Los Panchos bezalako musikariak iraileko hirugarren astean Iruñera etortzen hasi ziren, alkatearen hitzetan

«bertakoentzako kontzertuak» egiteko. Ildo beretik, 1992 eta 1993 urteetan entzierroak eta zezenketak izan ziren. Jaimeren ekimenak, baina, ez zuen arrakastarik izan, eta Sanfermin Txikitoek euren xarma berreskuratu zuten, handinahirik gabeko jaien xarma hain justu: Navarrerria plazako dantzaldiak, Aldapa kaleko afariak...

Aurten, helduentzako entzierroak • Javier Chourraut egungo alkatearen eskutik, datozen urteotan *chourradak* helduko ote dira Sanfermin Txikitoetara? Aurtengo Sanfermin

handietan bezala, edukiko al ditugu *Edad del pavo* dantzaldiak, *Noches calientes del Caribe* ikuskariak, eta Norma Duvalen *Por Norma* muntaia datozen Sanfermin Txikitoetan? Batek daki. Argi dagoen gauza bakarra zera da, aurten ez dela horrelako *chourradarik* izanen.

Navarrerria auzoko Jai Batzordeak aurtengo Sanfermin Txikitoetako jai egitaraua aurkeztu zuen joan den astelehenean. Toni Iragi batzordeko kideak azaldu zuenez, 3,3 milioi pezetako aurrekontuaren laguntzaz «jende guztiarentzako egitarau mardula, etengabea osatu dugu, mota guztietako musikaz betetako».

Egitarauan, dantzaldiak, *Karrozen Krosa*, prozesioa, artisautez azoka, herri kirolak edota haurrentzako jokoak bezalako *klasko*en ondoan, hainbat berrikuntza ageri dira. Horien artean azpimarragarriena, jai batzordeak lortu duen ganadutegi propioa da. Haurrentzako kartoizko zezen gurgildunen entzierroetan, Trikimako asialdi taldearen lan eskergari esker, bertako adar-dunek korrika egingen dute, eta ez hiriko beste auzoetatik ekarritakoak orain arte gertatu den bezala. Bestalde, helduek ere horien adarren aurrean aritzeko beta izanen dute, igandeko goizeko zazpitan estreinakoz egingen duten Auroraren entzierroan, edo mozki gaupasazaleentzako entzierroan, beste modu batean esanda. Halaber, jai eremua zabaltzeko xedearekin, jai batzordeak Aldapa kalean eta Gaztetxean kontzertuak antolatu ditu. X

San Fermin Txikitoa, alkate txikia

SANFERMIN TXIKITO jaietan, urtero-urtero alkate txikia hautatzen dute Navarrerria auzoko haurren artean. Aurten, Osiris Goikoetxea 10 urteko San Francisco kaleko iruinekoa izanen da alkate txikia, eta Daniel Gomez, Zapateria kaleko bederatzi urteko morroskoa, bere zinegotzia. Astelehenean Sanfermin Txikito jaiak aurkezteko eskainitako prentsaurrekoan Goikoetxeak azaldu zuenez, «izan bazen neska zinegotzia, baina dimittitu egin zuen, lotsa ematen ziolako».

Alkateak eta zinegotziak denbora gutxi daramate euren karguetan, baina hala eta guztiz ere asteleheneko agerraldian euren arteko estreinako tirabirak agerian geratu ziren. Goikoetxeak benetako alkatea balitz auzoan eskola gutxiago jarriko lituzkeela adierazi zuen. Gomezek, berriz, eskola gehiago eraikiko lituzkeela azaldu zuen. Dena dela, biok bat egin zuten jaietan gehien gustatzen zaizkien gauzak «zezenak, kilikiak eta txupinazoa» direla esateko orduan.

Biok modu berean heldu ziren euren postuetara. Auzoko Aldezar aisiadiraiko taldeak antolaturiko jokoetan parte hartu zuten, eta garaile atera ziren. Goikoetxea harro zegoen lortutako karguarengatik. «Gelako lagunek zorte handia daukadala esaten didate, baita inbidia pixka bat ere badutela. Karguari esker jaietan zertxobait geroago etxeratu ahal izatea espero dut». Gomezek ere itxaropen berbera zuen. Bi agintari txikien gurasoek ez zuten aurpegi onik jarri.

Egitaraua

Ostirala, 20

12.00:

■ Corazonistas-en terrazatik suziaren jaurtiketa.

18.30:

■ Haurrentzako txokolatada Navarrerria plazan.

18.45:

■ Futbito txapelketa.

20.00:

■ Lehen entzierro txikia.

20.30:

■ Haurrentzako gau-jaiak Navarrerria plazan: Basajaun.

21.30:

■ Antzerkia gaztetxean. Narentrepe taldearen *Euforia*.

22.30:

■ Zezen suzkoa.

23.45:

■ Kontzertua Los Insoportables taldearekin.

00.30:

■ Dantzaldia: Basajaun.

Larunbata, 21

13.00:

■ XVI. Karrozen Lasterketa.

14.30:

■ Eltzekada eta paella lehiaketa Redin txikian.

20.00:

■ Bigarren entzierro txikia.

20.30:

■ Haurrentzako gau-jaiak Iratxo taldearekin.

21.00:

■ Ortzadar taldea.

21.30:

■ Rumbak Gaztetxean.

22.00:

■ Txistulariak Navarrerrian.

22.30:

■ Zezen suzkoa betiko kaleetan.

22.45:

■ Herri afaria Aldapa kalean.

24.00:

■ Zarpantzarrek eta Ekaitza txaranga auzoan.

00.30:

■ Iratxo taldea Navarrerria plazan.

06.00:

■ Salda beroa Bullicio peñan.

07.00:

■ Auroraren entzierroa.

Igandea, 22

10.00:

■ Mami gosaria Navarrerria plazan.

12.00:

■ Aldapako San Ferminen prozesioa auzoko kaleetan.

17.00:

■ Haurrentzako jolas eta malabareak Navarrerria plazan.

18.00:

■ Bertso saioa Burgoen plazan.

18.15:

■ Herri kirola Burgoen plazan.

19.15:

■ Etzak etsil txalaparta taldearen saioa Burgoen plazan.

19.45:

■ Dantzaldia Fraile gaiteroekin Burgoen plazan eta larraindantza bukatzeko.

20.00:

■ Azken entzierro txikia.

20.30:

■ Kontzertua Anje Duhalderekin Navarrerria plazan.

22.30:

■ Azken zezen suzkoa eta Pobre de mi.

◆ Jone Elgorriaga eta Izaro Ansa ◆ Trikitilariak

«Aurtengoak merezi izan du»

Joan den igandean jokatu zen Altsasun Nafarroako III. Trikiti Txapelketako finala. Abuztuan Goizuetan eta Lakuntzan egindako kanporaketetan hemezortzi bikote izan ziren eta igandean zortzi lehiatu ziren. Azkenean, txapela Jone Elgorriaga eta Izaro Ansa trikiti bikoteak eramane zuten aurreko bi urteetan garaile izandako Mundiñano anaien aurretik.

Irene Arrizurieta / Iruñea

Oso kontent daude egunotan Jone eta Izaro, txapela lortu izanak bide beretik jarraitzeko gogo gehiago eman baitie. Bikote moduan gutxi badaramate ere, urtea pasatxo, etorkizun handiko trikitilariak direla frogatu zuten Altsasuko Foru Plazan eskainitako saioan.

■ **Igandean Altsasun jokatu zen Nafarroako III. Trikiti Txapelketa irabazi zenuten. Ezustekoan harrapatu zaitue edo txapela etxera eramateko itzaropena bazenuten?**

Jone Elgorriaga: Lakuntzako kanporaketan bederatzita partaiden artean bigarren sailkatu ginenez bagenuen esperantza pixka bat, baina txapela lortzea zaila iruditzen zitzaigun. Garaipena lortu arte ez genuen hain argi ikusi.

Izaro Ansa: Nahiz eta fabrikatzaileak hor egon, Mundiñano anaiak, kanporaketak egin ondoren bigarren ginen eta bagenuen itzaropen apur bat.

■ **Aurreko bi edizioetan garaile izandako Etxarri-Aranazko Mikel eta Iñaki Mundiñano anaiek osatu bikotea gaingiditu zuten. Txapelak gustu handi izanen du halakoetan, ezta?**



Izaro Ansa (panderoa) eta Jone Elgorriaga (trikitia) saio aparta egin zuten igandean Altsasun.

OSKAR MONTERO

Jone: Bai, hagitx pozik gaude garaipenarekin. Aurten Txapelketa geroago izan denez, denbora gehiago izan dugu prestatzeko eta hori gure mesederako izan da.

Izaro: Poztekoa da Mundiñano anaien aurretik gelditu izana, kanporaketa egin ondoren fabrikatzaile gisa gelditu zirelako. Hala ere, azkenean guk lortu genuen txapela.

■ **Bata Lesakakoa eta bestea Aranoakoa zarete, noiztik zabilzate bikote moduan trikititza jotzen?**

Jone: Joan den urtean hasi ginen, otsailean. Izarok trikitilari bat falta zuen eta nik ere bai. Nik Irungo eskola batean trikititza ikasten nuen eta hara joan ziren

galdezka. Batak zein besteak elkarren premia genuenez elkartu egin ginen.

Izaro: Txapelketan ere lehenbiziko aldiz joan den urtean atera ginen eta laugarren postua lortu genuen. Aurten hobeto eza gutzen genuen elkar eta hobeto prestatuak atera gara. Altsasun, igandeko finalean, biak abestu genuen eta dena biribilago atera zen.

■ **Hemezortzi partaide izan dituz hirugarren edizioak; gogorra izan da edo uste baino errazagoa?**

Jone: Aurten ikusi da maila igo egin dela. Geroago izan da eta jendea hobeto prestatu da. Joan den urtean kurtso bukaera izan zen, ekainean kanporaketak eta uztailaren 3an finala. Gainera, partaide kopurua mugitu egin da, hemezortzi izan dira aurtengo edizioan, eta ondorioz, mailak ere gora egin du.

Izaro: Kanporaketak nahiko

lasaiak izan dira, baina finala beti izaten da gogorra. Euskal Telebista ere gainean izan genuen, eta nerbioak egoten dira beti. Hala ere, aurtengoak merezi izan du. Joan den urteko kanporaketan ez bezala, hirugarren edizio honetan bien artean kantatzea erabaki genuen eta horrek ere eman ditu fruituak, ETBk trikiti hoberenari eman zion saria lortu dugulako. Gure kanten hitzak Antton Kazabonek egin ditu eta gure kalitatea kontuan hartu dela esan nahi du horrek.

■ **Nafarroan eta Euskal Herrian gero eta trikitilari gehiago daude, maila ere hein berean gero eta hobea dela esan daiteke?**

Jone: Maila ezberdinak daude. Bizkaian eta Gipuzkoan nabaritzen da tradizio gehiago dutela. Nafarroan maila apalagoa da, oraindik ez da beste bi herrialde hauetakoa bezain ona. Egon gara Gipuzkoako beste txapelketetan, Easo eta Grosen egindakoetan

adibidez, eta maila hobea dagoela nabaritu da.

Izaro: Gipuzkoan aldean izango da maila handiena eta Bizkaian ere ederra da. Nafarroan badirudi txapelketa honekin pizten hasia dela giroa eta jendea ere motibatzen hasia dela, urtetik urtera bikote gehiago apuntatzen baitira; aurten hemezortzi izan dira eta hori seinale ona da. Honek maila hobetzea dakar; bikote gehiago daude eta guztiok lortu nahi dugu lehenengo postua.

■ **Aurrerantzean zein asmo dituzue?**

Jone: Hiruko bat osatzen dugu, ni trikitilari gisa, Izaro panderoa eta gitarra jolea da, eta bere ahizpa Igonek baxua jotzen du. Guk orain arte bezala erromeriaz erromeria jotzen jarraituko dugu. Oraindik planik egin ez dugun arren, heldu den urteko txapelketa ere prestatzen hasiko gara, aurtengo ikusita animo gehiago ematen baitu parte hartzeak.

s o s l a i a

Jone Elgorriaga Lesakakoa da, eta Izaro Ansa, Oartzunen bizi den arren, Aranoakoa. Biek hemezortzi urte dituzte, eta biak ikasten ari dira. Irakasletza lesakarra eta batxilergo humanistikoaren arantarra.

Herri berekoak ez diren arren, entseguak eta abesti berriak egiteko beta hartzen dute astean behin.

Jonek eta Izarok asko maite dute trikititza, eta biek, txapelketetan aritzeaz gain, trikiti (Jone) eta pandero (Izaro) klaseak ematen dituzte bizi diren herrietan. Honetaz landa, kirola egitea ere maite dute.

Igandean 50.000 pezeta, txapela eta saria eskuratu zituzten egindako saioagatik. Altsasuko Foru Plaza lepo zegoen; hortaz, txapelketa baino lehenagoko hilabetean egindako entsegu bereziekin beren fruitua eman zuten.

P A N E LUCRÁNDO

ZALDI ERDA

LIRIKAZ
HONATAGO
•29•

GAUR:

Hango gari soroak ikusten dituzu? Nik ez dut ogirik jaten. Niretzat gariak ez du erabilerarik. Gari zelaiak ez didate deus ere orotarazten. Oso tristea da. Baina zuk urrezko ileak dituzu. Domestikatzeko banauzu izugarri polita izango da! Urre-gariak zure oroimena ekarriko dit. Eta gari artzan dabilen haizearen hotza maiztuko dut.

A. Saint-Exupéri.

Eta horrela printze txikiak azeria domestikatu zuen eta agurraren ordua iritsi zenean...



Errua zurra da! Nik ez nizon kalterik egin nahi baina zuk domestikatzeko nahi zenuen...



baina negar egingo duzu!!

bai



Irabazi dut.

Gariaren koloreagatik.

